

Roman Irigoien Mitxelena

Oscar Wilde-ren GIZAUNDI BEREKOIA

Joan Mari Irigoien idazle altzatarrak 2002. urtean argitara eman zuen *"Ipuin batean bezala"* izenburua duen nobelak orain irakurtzeko aukera daukazuen ipuinaren bidean jarri gintuen. Altzako giroan beratutako maitasun istorio goxo bezain tristea den nobela honetan, Leirek, protagonistaren hamaika urteko alaba, Ekain Ibargoiaren zeukan bere adineko lagun mina, eta harekin konpartitzen zuen zaletasun bera: antzerkia. Ekainen aitaren bitartez jakingo dugu aitona literatur zalea zela, Erramun Ibargoiaren, Altzako medikua izan zena. Hainbat saio eginak zituen alor honetan: *"Asko irakurtzen zuen. Poema batzuk ere idatzi zituen, kostunbristak, balio sentimental handiagoa dutenak literarioa baino. Eta Oscar Wilderen haurrentzako ipuin bat itzuli zuen euskarara, bertsoetan. Ez da-*



Roman Irigoien

kit ezagutzen duzun: 'Erraldoi berekoia'. Oso ipuin polita da, haur guztiak irakurri beharko lukezate." Nobelan zehar ikus ditzakegun paralelotasunak direla medio ez zen zaila Erramun Ibargoien delakoa benetako Roman Irigoienekin erlazionatzea. Izan ere, Joan Mari Irigoieni zor diogu bere aitak egindako Oscar Wilde-ren ipuin ezagunaren egokitzapen honetaz gozatu ahal izatea.

Ipuina bertsoz idatzita dago, erromantzearen eran, eta, gai hauetan aditua izan gabe, hura irakurrita harritzen duen lehenengo gauza darabilen euskara da. Gipuzkerazko aho tradizio sendoko jarduna, hainbat hitz berri, neologismo puristaren bat, kezka baten adierazgarri, baina konturatu gabe pasatzen direnak. Zaila da testu hau bere garaian kokatzea, gerra aurreko (Lizardi, Orixe...) edota ondorengo literaturarekin (N. Etxaniz...). Irigoienek idazkera tradizioari oso lotua dago, aho hizkera jantziari, gerra aurreko giro purista itogarritik erabat aldentua, eta aurreko gipuzkerazko tradizioa (Euskal-Erria, Euskal Etna...) baino askoz sendoagoa. Oso harrigarria da, benetan, 1948. urtean idatzita dagoela pentsatzen badugu.

Atentzioa ematen duen beste gai bat ipuinaren moralismoa da, batez ere nork idatzia den ikusita. Wilde kontradizioz betetako pertsona eta idazlea izan zen, mutur batetik bestera aritu zena. Heterodoxoa eta probokatzaileria, puritanoen jazarpena sofritu zuen. Alabaina, idazle irlandarrak denboraldi 'normalak' ere (ezkondu zen, bi seme izan zituen...) bizi izan zituen, bere bizitzako ilunenak, aldi berean. Honek lagun diezaguke ulertzen nola pagano handi bat zen idazle batek, 'moralinak' jotako ipuinak ere idatz zitezkeen. Bestalde, eta batez ere, Wildek estiloari eman zion garrantzi handiena, britainiar *estetizismoaren* ordezkari esanguratsueneko bat izatera heldu arte. Bere idatzietan edertasunaren aldeko joera dauka, dotore izatea, eta hau da, hain zuzen ere, ospetsu eta hain irakurria izateko arrazoi bat.

Ez da Roman Irigoienek egokitzapen hau Wilderen ipuinaren euskal bertsiotak baka-rra. Badago bat, 1927. urtean Joseba Altunak bizkaieraz itzulia "Wilde'tar Oskar. Ipu-ñak" liburuan, Susa argitaletxearen web orrian osorik aurkitu daitekeena (www.susaliteratura.com). Ez dirudi Irigoienek Altunarena ezagutzen zuenik, alde guztietatik be- giratuta oso ezberdinak baitira.

Beste itzulpen bat Koldo Mitxelenak, "Eleizalde" izengoitiaz, EGAN aldizkarian 1954. urtean egin zuen (1954, 2-4, 11-15 orr.) eta "Euskal Idazlan Guztiak" liburuaren IX. liburukian berrargitaratua izan da. Izan ere, Mitxelenak ipuinaren itzulpenari egin- dako sarreran idatzitakoekin bukatu dugu aurkezpen hau: "*Sermoi-zaleegia ez baldin ba'zera ere, ordea, gogoko izango zaizu noski ustegabeko praile dotore onen predikua: alegiñe- an gogortu nai gendukean biotz onen ixuri xamurrak ba-duela bere saria, alegia.*"

A.H.M.

Arrillaga'tar Juan Mari, lagun maiteari, biotz-biotzez

GIZAUNDI BEREKOIA

(Oscar Wilde'ren ipui batetik)

Ikastolatik aterata,
arratsalde guzietan,
Gizaundiaren baratzera
aurtxoak joaten ziran.
Baratzea, luze ta zabal,
eder berdin-gabea zan:
lore polit usai-dun asko,
belar biguña danean,
txoritxo alaiak "txioka"
batetik bestera egan,
ta igali ederrez beteak
zugaitzak udatzenetan...
Gizaundi berekoi gaiztoa
erbestean zan artean
benetako zoriontsuak
bizi ziran aurtxoak an.

Baña Gizaundia biurtu zan
egun batez atzerritik,
eta baratzean jolasten
aurtxo taldea ikusirik,
asarrez oju egin zien:
-"Zoazte laixter emendik"!
Au nerea da, ta ez det nai
iñortxo emen sartzerik!.
Aurtxoak, beldur eta lotsa,
ezkutatu ziran andik.
Eta nola bidean etzan
autsa ta arriak besterik
Berekoa'ren gaiztakeriz
e'tzuten jolas-tokirik:
aurren zoriona amaituzan
jabea iritxi zanetik.

Txori alai, lore politak
berek uda-berriak...
Etorri zanean, apaindu
zitun inguru guziak;
Gizaundiarena ordea
betiko negu gorriak
zigortzen zun; aurtxorik e-tzan
ta abestu nai ez txoriak...!
aurren alaitasunik gabe
iriki nai ez loriak...
Elurra ta Izotza bakarrik
zeuden an pozez betiak.
-“Uda-berria aztu(zan) ta zegok
-zion batari bestiak-;
izan gaitezen bada biok
baratzeko nagusiak.

Izotza ta Elurra’rekin
Gizaundiaren negarra:
baratza len ederra ba’zan,
aurrera guzia igarra.
Au naikoa ez, eta biok
egin zuten deadarra:
-“Ipar-aizea, ator gugana!
ta etorri zan Iparra:
ango aize-txistu ta dana
lurrera bota bearra...
-“Au toki goxoa -zioten-,
auxe bai toki ederra...
lagun-arte osatzeko
emen balitz lagun zarra...
deitu dezaiogun berari:
betor, betor Kazkabarra!

Izazkabarra zai zegon nunbait
eta, zarata aundiakin,
lagunak dei egiterako
an zan bere lagunekin.
Eraso eraso gañean
gero ta indar geiagokin,
une batean amaitu zun
ango tella guziekin.
Jabeak, leiotik begira,
asarre biziarekin,
gertatzen zana ikusi arren
iñolaz sinistu ezin:
auzoko baratzak apañak,
ta berea negu-erdin...
Egunak ontzen, uste zun
berdinduko zala aiekin...

Usteak erdia ustela izan...,
ta arren usteak alperrik.
Uda-berria irixten e-tzan,
ez eta ere Udararik...
Udatzenez inguruko
zugaitzen adarretatik,
txuri ta gorri ta mardulak
eunka igaliak txintxilik,
eta Gizaundiarenean
ez ta ere bat bakarrik...
Benaz baratz negargarria
ikusten zana ikusirik:
betiko Negu gogorrean
etzan agintzen zuanik,
Elurra, lzoza, Ipar-aizea
eta Kazkabarra baizik.

Baña goiz batez Gizaundia
lotan zegolarik gelan,
eresi batek esnatzeaz
arrituta geratu zan:
karnabatxo "txirulari" bat
arizen leio aurean;
bañan ain eztia zitzaion
-entzun gabez aspaldian-
erreslarien erregea
izango zala uste zuan.
Orduantxe Kazkabar-otsa
ta aizeana amaítu ziran;
ta lore usai gozo-goxo bat
zeterrela nabaitzean,
jaiki zan ta leiora atera
zalantza utzi bearrean.



Iturria: "The complete illustrated stories plays and poems of Oscar Wilde". Chancellor Press, 1991

Baratzera begiratuaz
Gizaundia bai arritu:
Arresiko tarte batetik
ziran aur guziak sartu,
ta zugaitz banatara igorik
adarretan aulkia artu;
zugaitzak poza azaldu naiaz
ixtan-patean loratu,
ta beren ostoeekin aurren
arpegiak pallakatu;
txoriak, batetik bestera,
beren egoak zabaldu
ta an zebiltzan ixildu gabe
“txio ta txio”, alaitu...
Arrigarria: atzo Neguan
eta gaur Uda-berritu...

Baña baratzeko bazter bat
oraindik atzeratua;
guzia ain polita, ain txukuna,
ta antxe bakarrik Negua;
txoko artan zegon zugaitza
Izotz-Elurak artua;
bere gañean, len bezela,
Ipar-aizean txistua...
Zugaitz-oñean ikusi zun,
zearo naigabetua,
igo nai, baña txikia izan
da ezin igo, aurtxua.
Adarrak al-zitun guzia
jetxirik, kupiratua,
zugaitzak zion: “aurtxo-txiki”,
igo, igo... eman eskua...”

Zugaitz-adarrak jetxi arren
ta aurra jarri anka puntan,
txikia izan, oso txikia,
ta an zebillen eziñean.
Katazka aietan Gizaundiak
aurtxoa ikusi zunean,
zarratada bat nabaiturik
bere biotz barrenean,
“A zer nerekoia izan naizen!
-esan zun bere anean-.
Orain ikusten det zergatik
zan Negua baratzean;
nik jarriko det, nik aurtxo ori
zugaitzaren gain-gainean;
ta dana irikiaz, aurrera
jolas ditezela bertan”.

Asmo onenarekin iriki
zun atea ixil-ixilik
eta baratzera sartu zan
aurtxoekin egon nairik.
Baña aurrak Gizaundia ikusi
ta ikaraz danok beterik,
zugaitzak utzi ta laixterka
eskutatu ziran andik.
Eta baratzera Negua
etorri zan berriotik...
Bi begiak malkoz beteak,
ezertxo ikusi eziñik,
beste aurtxoak joan arren
txikiena an zan oraindik
katazka bizian gañera
igo naiean... alperrik

Au ikusirik, Gizaundia
joan aurtxoarengana,
ta zugaitz gañean jartzea
izan zun lenengo lana.
Une artan txoriz ta lorez
zugaitza bete zan dana...
Aur txikiak, pozez beterik
ta azalduaz esker-ona,
besarkatu ta eman zion
Gizaundiari laztana.
Igeska joan ziran aurrak
ikusiz gertatzen zana,
ausarturik, danok ostera
biuru ziran biongana.
Uda-berria-re berriro
etorri zan aiengana.

Ta Gizaundiak esan zien:
-“Atozte emen jolastera,
semeak; nere baratzea
zuentzat izango da aurrera”,
ta aizkora artuaz, itxitura
dana bota zun lurrera;
gero Gizaundia jarri zan
aurtxoekin jolastera.
Ango abesti, ango poza
ta ibilli gora ta bera...!
Betiko Uda-berria...: lore,
txori ta aurtxoak batera...
Jakiña, erriko jendea
baratzearen urrera
biltzenzan edertasun ura
bein ta berriz ikustera.

Jolasean eguna igaro
ta illunabarra zanean,
aurtxok Gizaundiagana
inguratu ziranean,
-“Zugaitzera igo dedan aurre,
nun dezute?” -zien esan.
Danok maite, bai, bañan arren
laztan goxoa gogoan...
-“Ez dakigu nun dan -erantzun
zioten aurrak-, joan zan”
Etortzeko esaiozute
berak nai dun guzietan”.
-“Ezin ordea; ez dakigu
ez non dan, ez nun bizi dan...”
Gizaundia zenbat samindu
Erantzun au entzutean... !

Ikastolatik atera ta
laixterka estu ta larri
aurtxoak Gizaundiagana
inguratzen ziran beti;
baña txiki maitiena ura
geiago etzan ikusi.
Orain, guztiontzat ona-arren,
txikia gabe ezin etsi...
-“Bera ikustea -zion noiz nai-
a... ! neretzat bai pozgarri...”
Orla urte azko igaro ziran;
Gizaundia, zar ta nagi,
jolastu ezin, eta aulkitik
begira aurtxo taldeari,
-“Zuek zerate, zuek -zion-
baratzeko apaingarri”.

Negu gordiñean goiz batez
Gizaundia esnatu zan,
ta jazten ta begira zegon
leioaren barrendikan;
orain Neguarenganako
gorroto-izpirik e-tzeukan.
Negua... zer da Uda-berria
lotaratua baizikan...?
Negua.... Negua..., zer loreen
atsedena besterikan...?
Begira ta begira zegon,
eta alakorik batetan
ikusten zunaikin txunditu,
bi begiak zabalikan,
e-tzekin an ikusten zuna
sinistatu zitekean...
izan-ere gertatzen zana
benetan arritzekoa:
baratzeko txoko batean
-ura zan, ura txokoa!-,
Negu gordiñean, zugaitz bat
iñun berdin-gabekoa:
lore txuri, urrezko adarrak,
igali zillarrezkoa;
ta zugaitz-pean..., bai, ura zan,
aur txiki ura..., aspaldikoa!
Gizaundiak ainbat maitatu
ta aztu e-zin zun aurtxoa!
Begira zegon, anakak “dar-dar”
ta biotzean saltoa;
gero, laixter, Gizaundia altxa
ta baratzera an dijoa...

Pozak eman zion indarra,
ta pozak kendu ajeak;
baña inguratu beragana,
ta urre bertan aserreak
odoltsu arpegia jarri
ta begietan txingarrak.
“Nork zauritu zaitu, maiteño”?
-izandu ziran bere itzak-
Zergatik bi iltzez zaurituta
zeuzkan aurrak eskutxoak...
eta beste bi iltze zorrotzaz
zaurituak ankatxoak.
-Zu zauritzen, nor ausartu da?
-esan zien Gizaundeak-;
“esaidazu, eman dezaion
eriotza nere ezpatak!

“Ez! -aurtxoak erantzun zion-;
Maitasunak nau zauritu.”
Au entzuteaz, poz-ikara
bere barruan nabaitu,
Gizaundia aurtxo txikiaren
aurrean belaunikatu,
ta onela galdetu zion:
-“Baña, nor zera zu... nortsu...?”
“Irri-par goxo zeriola
aurrak erantzun: -“Jolastu
nintzan, zuk utzita, bein emen;
jolastu gaur zeruan zu...
.....
.....
Arratsaldean aur-talde
zanean ara inguratu,
zugaitz-pean, lore artean,
zun Gizaundia illa arkitu.

Román Irigoien Mitxelena

1.948'gn X-ren 15'ean